

# noauea

**Zatoz mozorro festara**

**Parekidetasun Sailak  
'Busti feminismoan'  
ikastaroa antolatu du**


**Pagazpe Pilota Elkartea,  
sasoi betean**



**Erraustegia Erabakia taldeak 1.185 eskaera aurkeztu ditu Udaletxean**

**“Galdetu herriari ea erraustegia  
egitea nahi duen ala ez”**

# Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2015 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2015eko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

## BAZKIDEEN TXOKOA



Otsailaren 5ean ZOZKETATUKO dugu:

**IRUIN  
SAGARDOTEGIAN**

2 LAGUNENTZAKO  
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN  
TXOTXI!

**noaua! euskararen aterpe**

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / [ekartea@noaua.eus](mailto:ekartea@noaua.eus)

## Albiste iruditan

# Agertu da urtarrileko Tipi-Tapako sarituetako bat

**6**.468 zenbakidun txartelaren jabea, Martin Trottari eta bere senideei tokatu zaie urtarrileko pintxo festa amaieran ospaturiko zozketako saritako bat; 150 euroko erosketa balea. Zozketa berean ordea, bigarren sari bat ere atera zuten; 2 lagunentzako afaria. 3.689 zenbakidun txartelari egokitu zitzaion. Otsailaren 14an ospatuko den hurrengo Tipi-Tapan, sariok jokoan jarriko ditu berriz Hurbilago Elkarteak. Artzabal, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan zizka-mizka bereziak eta edaria, 2 euroren truke dastatu ostean izango da.

### Hurrengo Tipi-Tapa, otsailaren 14an

Hurrengo Tipi-Tapa otsailaren 14an egingo da, eta horretan ere bi sari zozketatuko dira ibilbide gastronomikoa osatzen duten guztien artean.



150 euroko erosketa balea tokatu zaio Martin Trottaren familiari. 6.468 zenbakiari esker irabazi dute urtarrileko saritako bat.

## Laburrean

### Otsailaren 20an, Foncalent espetxera martxa

Ezker Abertzaleak otsailaren 20rako espetxe guztietara martxak antolatu ditu. Usurbildik, Foncalent espetxera mobilizazioa antolatu dute. Bertan dituzte preso Olatz Lasagabaster Anzar eta Patxi Uranga Salbide. Datorren astekean, martxa honen inguruko zehaztasun gehiago.

### 1956koen kinto afaria Antxeta jatetxean egingo da

Otsailaren 27an larunbatarekin bilduko dira, Antxeta jatetxean. Otordurako izen emateak zabalik segitzen du, otsailaren 22ra arte.

Izena eman nahi duenak, bi telefono zenbaki hauetako batera deitu dezala:

656 308 212 (Iñaki)

943 362 555 (Mari Karmen).

### Bihurri ludotekako bazkidetzen ordainketa

Otsailaren 29ra arte dago epea. Bazkide berriek 30 euro, jada bazkide direnek 10 euro, ondoko kontu zenbaki honetan: Kutxabank 2095 5069 06 1063903578.

Zalantzak argitzeko edo proposamenak egingeko, ludotekako tabloira jo dezakezue eta iradokizunak bertan egin.

# noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noqua.eus /// www.noqua.eus

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatorak:**  
Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noqua.eus

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**  
**erredakzioa@noqua.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.  
**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Maialen Unanue

## Kea saltzeaz

Hainbeste urtetan eman duten lata medio, jakinmina piztu zidan Donostia 2016-ren kultur hiriburutzaren estreinaldirako prestatu zuten ekitaldi nagusiak. Ezin izan nuen joan, baina uste dut bertan egon zen edonork bezainbeste ulertu dudala han gertatu zena. Edo gertatu ez zena. Edo zer dakit ba nik.

Hurrengo egunean esan zidan lagun batek, dotoreziaz esatearren, hutsaren hurrengo izan zela 660.000 euro kostatu zen ekitaldi hura. Berriz diot: 660.000 euro. Jendeak gauza gutxi ikusi ahal izan zuen; are gutxiago, ulertu. Argiak, argi asko; Maria Cristinako zubia tartean. Baga, biga, higa. Aizkolari bat grua bertikal horietako baten gainean, sokatiran ere ari ote zen baten bat... Elkarbizitza, aniztasuna, elkarriketa. Ekitaldia amaitu zela jabetzea ere kosta egin zitzaion

jendeari, pentsa.

Egurra jaso zuen ekitaldiak sare sozialetan. Arduradunek ere onartu behar izan zuten Hansel Cerezak, horren guztiaren egileak, hitz emandako ekitaldi "hunkigarri" hark ez zituela aurreikuspenak bete, ez zuela maila eman. Ondorengo egunetan errua batzuek besteei nola bota zieten ikusi genuen. Ekitaldiaren ideologoak ez zituen donostiarrak lasaitu: haren hitzek gehiago zuten irainetik, beste ezer baino gehiago.

Ekitaldiaren emozio gaindosiaz hitz egin zuten aurreko egunetan, donostiarrak hunkitu behar omen zituen. Baina, gauzak zer diren, ez zuten halakorik lortu. Telebistatik ikusteko -eta ez bertatik bertara ikusteko- prestatu omen zuten ikuskizuna. Nola hunkitu nahi zuten jendea, apenas ezer ikusteko aukerarik izan gabe? Argiak piztu, et voila?

Ertz asko ditu gaiak: nolatan es-

katu zioten Cerezari ekitaldia prestatzeko soilik bi hilabete falta zirenean, zergatik eskatu zitzaion hari lan hura egiteko, eta abar. Nik zer bait arruntagoa espero nuen, Euskal Herriko artistek egingo zutena, eta, aldi berean, ikusgarria izango zena. Imaginatzen nituen Kukai taldekoak, orkestra sinfonikoaren doinuen harira dantzan... Baina, tira, horrek arrisksutik gutxi duela esango du baten batek.

Entzun eta irakurritakoengatik esan daiteke ekitaldi hura azken urte guztietan eman duten lataren parekoa izan zela: ke hutsa. Dena oso ponpoxoa, olatuak handik eta hemendik, energiak eta sinergiak... Dena izan da oso abstraktoa, etengabea. Baina zein da bidali duten mezua? Ahaleginik egin ote dute mezu hori jendartera helarazten? Zerbait oso gaizki egin dute urte guztietan jendeari kultur hiriburutzaz galdetu eta inork ezer argirik erantzun ezin ahal

izateko. Are ulergaitzagoa izan zen donostiar askorentzat bilgune zen Kortxoenea gaztetxea botatzeara.

Ez zuten herritarrengana heltzea lortu, eta hori da, nire ustez, egin zuten akatsik handiena. Nola sentituko du jendeak proiektu bat bere, nola hunkituko duzu, ulertu ere ez badu egin esan nahi diozuna? Kontua da agian ez dela hori interesatzen zaiena, baizik eta hiriburutzaren bidez Donostia gure mugetatik harago proiektatzea. Hau da, erakusleho izan dadila, edukiz hustua, interes ekonomikoenera menara egituratua.

660.000 euroko aurrekontua duen ekitaldi batengandik askoz gehiago espero zen. Gauza bat argi dago: oraindik EH Bildu balezko udal gobernuan, ez zuten bakerik izango denek dimisioa eman arte.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | **Maialen Unanue** | Ilazki Gaintza | Idoia Torregarai | Luis Aranalde

## Atxega jauregian banatu ziren Argia Sariak

Aurreko astean banatu zituzten Atxega Jauregian, 2016ko Argia Sariak. 27. edizio honetako sarituen artean, iaz NOAUA! Kultur Elkartek proiektaturiko "Loreak" filma dago. Merezimenduzko Argia Saria jaso du Jose Mari Goenaga eta Jon Garañoren lanak, "euskal zinemarentzat orain arte ireki gabeko atea zabaltu dituelako".

Ondoko irudian dituzue aurtengo sarituak, eta segidan, arloz arlo, sari bakoitza nork jaso duen:

- Ikus-entzunezko Argia Saria: Hiru Damatxo taldearen Gure Bazka elkarriketa sortarantzatzat.
- Sustapen Ekintzari dagokion Argia Saria: Gora Gasteiz! ekimenarentzat.



Irudian, saritutako lagun guztiak (argazkia: Argia).

- Prentsa idatziaren arloko Argia Saria: "CAN: eta hemen ez da ezer gertatu" liburuaren egile Joxerra Senar kazetariarentzat.
- Internet arloko Argia Saria: azpi-

tituluak.com webgunearentzat.

- Irrati arloko Argia Saria: Euskal Irratien "Goiz Berri" saioarentzat.
- Merezimenduzko Argia Saria: "Loreak" filmarentzat.

### Ikastetxeetan matrikulatzeko epea amaitzeaz da

Matrikulazio epea otsailaren 5ean amaituko da.

#### ■ Udarregi Ikastola:

943 36 12 16  
Gernika ibilbidea  
udarregi.eus

#### ■ Aginagako Eskola:

Erriberako Kalea 7  
943 372 044  
012261aa@hezkuntza.net  
aginaga.eskolatxikiak.org

#### ■ Zubietako Eskola:

943 372 931  
012219aa@hezkuntza.net  
zubietako@eskolatxikiak.org  
zubietako.eskolatxikiak.org

# Busti feminismoan ikastaroak “garatu diren borroka feministen isla izan nahi du”

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak ‘Busti feminismoan’ izeneko ikastaroa antolatu du. Otsailaren 11n hasiko da eta bi hilabetezko iraupena izango du. Ostegunero batuko dira Potxoenean. Izena emateko epeak zabalik jarraitzen du. Ikastaroari buruzko xehetasun gehiago jakin asmoz, Miren Aranguren eta Edurne Epelderen adierazpenak batu ditugu. Eurak arituko dira gidari lanetan.

Ikastaro honetan, mendebaldeko mugimendu feministaren historia ekarriko dute gogora, baina “Euskal Herrian 70. hamarkadatik aurrera eman den mugimenduaren inguruan ere solastuko gara, antolatzeko moduak eta aurrera eramandako borroka aztertuz. Historia ezagututa, aurrera begira ditugun erronketan sakontzen lagunduko digu”.

**NOAUA! Zeintzuk dira “Busti feminismoan” ikastaroaren helburuak?**

Ikastaroak feminismoa, aurrera eramandako borroka eta garatu diren borroka feministen isla izan nahi du. Lehen aldiz hurbiltzen denarentzako baliogarria eta ezagutza gehiago duen horrentzako sakontzeko tarte eskainiko dugu. Helburua, hurbildu eta feminismoaz bustitzea da, ezagutzea, hausnartzea, konpartitzea eta gaur egun eskuartean ditugun erronkei aurre egiteko baliabideak eskaintzea da. Analisisira



Miren Aranguren eta Edurne Epeldek gidatuko dute ikastaroa. Hamar saio izango dira, otsailaren 11tik apirilaren 28ra, ostegunetik Potxoenean.

## ASTEAN BEHIN

**“Teoria eta praktika landu nahi ditugu, hausnarketak eta diskurtsoak aztertuko ditugu baina horiek praktira eramateko moduak ere ezagutuko ditugu”**

zein praktika politikora bideratuta egongo dira saioak, elkarren artean ikasiko dugu.

**N. “Atzo eta gaurko proposamen feministetan sakontzen”. Azpi-izenburu hori du ikastaroak. Izaera teorikoa duen ikastaroa dela esan al daiteke?**

Esan bezala teoria eta praktika landu nahi ditugu, hausnarketak eta diskurtsoak aztertuko ditugu baina horiek praktikara

eramateko moduak ere ezagutuko ditugu. Mugimendu Feministan betidanik teoria eta praxisa uztartzeko beharra agertu da, bata bestea gabe ezin dela garatu ulertu izan da, eta ikastaro hau ere horren isla izatea nahiko genuke.

**N. Nola antolatuko duzue?**

Hamar saio egingo ditugu orotara. Astean behin batuko gara, ostegunetan, eta bi orduz. Hasierako saioetan mugimenduaren historia, antolakuntza ereduak eta mugimenduaren ezaugarritzea landuko dugu, pixkanaka jendarteko eremu bakoitzean garatu dituen diskurtso eta praktikak ezagutuko ditugu. Azken bi saioetan, hau guztia gorpuztu eta guretik feminismoari ekiteko lana egingo dugu, mugimendua eta gorpuztu ardatz. Animatu!

## Ostegunetan, Potxoenean

Ikastaroa otsailaren 11n hasi eta apirilaren 28an amaituko da.

■ Iraupena: guztira 20 orduko ikastaroa.

■ Egunak: otsailak 11, 18 eta 25, martxoak 3 eta 10, apirilak 7, 14, 21 eta 28 (ostegunak).

■ Ordutegia: 17:30-19:30.

■ Non: Potxoenean.

■ Dinamizatzaileak: Miren Aranguren eta Edurne Epelde (Emagin).

■ Izen ematea, doan. Usurbilgo Udaleko parekidetasun sailean. Telefono zenbakia: 943 377 110. E-posta helbidea:

parekidetasuna@usurbil.eus

■ Antolatzailerak: Usurbilgo Udala.

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**Josue**  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**  
Moduz, azkar eta prezio onean  
MARKA GUZTIAK  
645417665  
XABIER  
Usurbil

## Etkez etxeko laguntza zerbitzua esleitzeko deialdia egingo da berriz

Usurbilgo Udalak etkez etxeko laguntza zerbitzua esleitzeko egin berri duen lizitazioa desertu geratu da; alegia, deialdira ez zen inor aurkeztu. Urtarrilaren 26an eginiko osoko bilkuran, gobernu taldetik aditzera eman zutenez, lizitazioa berriz abiatuko du Udalak.

Bitarte horretan ordea, zerbitzua eskaintzen segi behar zaie erabiltzaileei. Kontua da, egun etkez etxeko laguntza kudeatzeaz arduratzen den Arreta Zerbitzuak S.L. enpresarekin Udalak sinatua zuen kontratua amaitu berri dela. Zerbitzua esleitu ostean, Udalak aipatu enpresarekin 2010eko urtarrilaren 2an 4 urterako formalizatu zuen kontratua. Beste bi urtez luzatzeko aukera zegoen, eta 2 urtez luzatu da.



Aurreko asteko udalbatzan hartu zen erabakia.

Honenbestez, “luzapen guztiak burututa daude”. Lizitazio berria gauzatu artean eta “orain arteko baldintza berdinetan” Udalak Zerbitzuak S.L. enpresarekin hitzartua duen kontratua gehienez beste 6 hilabetez luzatzea onartu zuen udalbatzak aho batez, azken osoko bilkuran. Onarpen honekin, alkateak gai honi lotuta abenduaren 30ean emandako 2015/1218 dekretua berretsizuten udal ordezkariak.

### Esleipen deialdia:

■ Zehaztasunak: Usurbilgo etkez etxeko laguntza zerbitzua ematea bi urtez, beste urte beteko bi epez luzagarri.

■ Informazio gehiago jaso edo agiriak eskuratzeko: otsailaren 1eko GAO, [usurbil.eus](mailto:usurbil.eus), [kontratazioa@usurbil.eus](mailto:kontratazioa@usurbil.eus) edo 943 371 951.

■ Eskabideak aurkezteko: 15 egun natural, otsailaren 1etik zenbatzen hasita udal erregistroan, 08:00-14:30 artean.

### Udalak 11 batzorde informatzaile ditu orain

Abenduaren 23ko ezohiko plenoan, Antolakuntza Batzorde Informatzaile berria eratzea onartu zuten. Baita haren osaera ere; alegia, aipatu batzordean, EHBildu, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeak nortzuk ordezkaturiko zituzten erabaki zen. Batzorde berri hau, lehen aldiz biltzekoa da egunotan.

### Batzorde informatzaileak

Ogasuna eta kontuen batzorde berezia; Hezkuntza eta garapena; Nekazaritza eta ingurunea; Hirigintza; Zerbitzuak eta obrak; Kultura, euskara eta gazteria; Pertsonala; Parekidetasuna eta aniztasuna; Osasun eta gizarte zerbitzuak; Kirola; Antolakuntza.

## Artzabal jatetxearen esleipen prozesua martxan

Gure Pakea Elkarteak Artzabalen duen egoitzako tabernaren kudeaketa kontratua esleitzeko deialdia abiatu du Usurbilgo Udalak. Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordean esleipen honi loturiko kontratazio espedienteari aho bateko babesa eman ostean, urtarrilaren 26an egin zen osoko ohiko bilkurara eramane zuen gaia, udal gobernu taldeak. Udalbatza osatzen duten 13 ordezkariak ere bat egin zuten proposamenarekin.

Honenbestez, “aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespina” ere eman zien udalbatzak.

Espedientean gogorarazten denez, “Artzabal udal eraiki-



Bost urteko esleipena egingo da, beste bost urtetarako luzagarri.

nean kokaturiko Gure Pakea jubilatuen tabernaren kudeaketa aurrera eramateko Udalak ez du langile propiorik eta hortaz, berau kontratatzea beharrezkoa da jubilatuen elkarte eta haien erabilerarako eraikinen kudeaketa egokia giteko”.

### Epe luzeagorako esleipena

Kontratazio deialdi honen zenbait xehetasun aurreratu zituen osoko bilkuran, Jone Urdanpi-

lleta udal ordezkariak. Batetik, eta hemen dator berrikuntza nagusia, 5 urtetarako esleipena planteatzen du Udalak, gero urtez urte, 5 urtera arte luzatu ahalko dena. 4 urtetarako kontratazioa izaten zen orain arte.

Bestalde, kudeatzaileek ordaindu beharreko hileroko kanona 1.000 eurokoa izango da, %21eko BEZ-a erantsita, 1.210 eurokoa. Kanona, kontratua sinatu eta 2 urtera berrikusiko

da. Diru kontuez ari garela, jubilatuentzako prezio bereziak bermatu beharko ditu kudeatzaileak. Preziook herrian ditugun beste bi elkarteetako tabernen parekoak izan beharko dute.

### Deialdira aurkezteko 20 egun

Prozedura ireki eta ohikoaren bidez gauzatu du Udalak esleipena. Puntuazio sistemaz baloratuko da, alderdi teknikoa, interesdunek aurkezturiko proiektua, kudeatzaileen titulazioa, eskainiko den zerbitzua, inbertsio hobekuntzak...

Eskabideak aurkezteko 20 egun naturaleko epea egongo da udal erregistroan (8:00-14:30 artean), otsailaren 2tik zenbatzen hasita.

Informazio gehiago: otsailaren 2ko GAO, 943 371 951, [kontratazioa@usurbil.eus](mailto:kontratazioa@usurbil.eus) edo [usurbil.eus](mailto:usurbil.eus)

# Natali Izagirre Aginaga, gidabaimena euskaraz ateratzeagatik saritua

Buruntzaldean gidabaimena euskaraz ateratzeak saria izaten du. Galdetu bestela, Andoaingo Mendi eta Bengoetxea, Astigarragako Otamendi, Hernaniko, Lagunak, Hernani eta Otamendi, Lasarteko Izarra, Lasarte eta Mugica eta Urnieta zein Usurbilgo Solozabal autoeskoletako ikasleei. Prestakuntza gune guztietan iaz gidabaimena euskaraz prestatu eta gainditu zutenen artean, 11 ikasle saritu dituzte gaur, Buruntzaldeko udal eta autoeskolok, sektorea euskalduntzeko 2010. urteaz geroztik martxan duten kanpainaren baitan.

## 11 saritu

Udalerri bakoitzean dagoen auto eskola kopuru adina sari banatu dituzte. 400 euroko 11 sari guztira Buruntzaldean; horietatik 2 Andoainen, 1 Astigarragan, 3 Hernanin, 3 Lasarten, 1 Urnietan eta 1 Usurbilen. Usurbilen autoeskola bakarra dugunez, iaz gidabaimena euskaraz ateratu zuten herritarren artean egin duten zozketan, Natali Izagirre Aginaga gaztea izan da zorteduna. Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik, 400 euro irabazi ditu. Zorionak!



Buruntzaldeko Auto Eskoletan euskaraz egin daiteke gida-baimena.

## 400 EUROKO 11 SARI

**“400 euroko 11 sari guztira Buruntzaldean; horietatik bi Andoainen, bat Astigarragan, hiru Hernanin, hiru Lasarte-Orian, bat Urnietan eta bat Usurbilen”**

Gainerakook, gidabaimena euskaraz ateratzen segi eta halako sariak irabazteko aukera izango duzue urtebete barru, kanpaina honekin jarraitzeko asmoa baitute Buruntzaldeko 6 udal eta 11 autoeskoletan, “gazteek ikus dezaten, ikasketetatik edo familietatik kanpo ere bizi daitekeela euskaraz”.

Maiatzean aurkeztuko dute edizio berria. Lasarte-Oriako udaletxean ospatu zen zozketan, ezinbestekotzat jo zuten autoeskolen inplikazioa.

## Parte hartzea

### laukoiztu egin da

Eta gazteena noski. Gidabaimena euskaraz ateratzeko gonbita luzatzen zaie urtero Buruntzaldeko udal eta autoeskoletatik. 2015ean eskualdeko 113 gazte izan ziren gidabaimena euskaraz ateratzeko hautua egin zutenak. Kopurua, aurreko urteetan baino zertxobait baxuagoa izan zen eta azken urteotan emandako gorakada eten da. Kanpaina honen sustatzaileek sakonago aztertzeke asmoa

dute ia zerk eragin duen beherakada, baina aipatu dutenez, “jendartearen bizi dugun egoerak” zerikusia izan dezake.

Halere, 2010ean egitasmoa abiatu zutenetik urteotan laukoiztera heldu dira, gidabaimena euskaraz ateratzera animatzen diren gazteen kopurua:

## 113, euskaraz ateratu zuten gazteak

Urtea/Buruntzaldean gidabaimena euskaraz ateratu zuten gazteen kopurua

2010: 34.

2011: 60.

2012: 112.

2013: 135.

2014: 140.

2015: 113.

## Sarituak udalerriak

■ Andoain: Lorea Otero Azpillaga eta Eduardo Fraile Gonzalez.

■ Astigarraga: Markel Sanchez.

■ Hernani: Enara Agirrezabal, Mirella Becerra eta Jon Zubillaga.

■ Lasarte-Oria: Izar Agirretxe, Mikel Gonzalez eta Andoni Amonarritz.

■ Urnieta: Leire Erasun.

■ Usurbil: Natali Izagirre.

## Santueneko jubilatuen lokaleko taberna esleitzeko prozedura abiarazi du Udalak

Santueneko “Gure elkar-tea” jubilatuen lokaleko tabernaren kudeaketa esleitzeko prozedura irekia martxan da. Kontratu honen hasierako iraupena 2 urtekoa izango da, hau urtez urte, luzatu ahal delarik, beste 2 urte gehiagor, guztira 4 urte bete arte. Hau kudeatzeko gutxieneko kanona hileko 300 euro + BEZ izango da, alegia, urteko 3.600 euro + BEZ.

Bi urte igarotakoan, kanona berrikusteko aukera egongo da.

Kontratua betetzean, esleipendunak bere jardueragatik eragindako kalteei erantzuteko aseguruia eduki beharko du, gutxienez 150.000 eurokoa.

Hizkuntza irizpideei dagokionez, zerbitzu hizkuntza euskara izango da, hizkuntz-paisaia ere islada izan beharko duelarik, errotuluei, oharrei,

seinaleei, karteiei eta gisa bereko komunikazio orokorrari dagokionez.

### Kontrataziorako irizpideak

Kontratu honen esleipen prozeduran honako irizpideak hartuko dira kontuan: kanonean egiten den eskaintza, proposamenaren balio teknikoa (ustiapen proiektua, Santuenea auzora egokitzea eta zerbitzuaren antolaketa kontuan hartuko di-

relarik), inbertsio hobekuntzak eta bestelako hobekuntzak.

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute, jarduteko ahalmen eta gaitasun juridiko osoaren jabe diren eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten pertsona fisiko zein juridikoek.

Informazio osoagoa Usurbilgo Udaleko Erregistroan jaso daiteke.

# Etixeraten zozketa, sarituen zain

Urtarrilaren 29an egin zuen Etxeratek, antolatua zuen errifa zenbakien zozketa. Usurbilen Nahi Ditugu! Elkartetik berri eman dutenez, “zorte hobea banatzea espero bagenuen ere, Usurbilen saldu ditugun zenbakien artean ez dago irabazlerik (gureak 26.000 zenbakiaren ingurukoak ziren). Hurrengo batean izango ote da... zoritzarrez, eta gure nahiaren kontra, elkartasun ekonomiko eskatzeko premian izango baikara berriro ere. Ojala oker izango bagina! Horrek esan nahiko luke gure senideak alboan ditugula eta halako laguntza-eskaerak egiteko beharrik ez genuela izango. Dena dela, eskerrak beren ekarpena egin diguten herritar guztiei. Babes horrek eusteko indarra ematen digu. Biba zuek!”.



Aurreko ostiralean euskal presoek eskubideen aldeko elkarraratzea egin zuten Mikel Laboa plazan.

## Zenbaki sarituak

- 1.saria, Kubara bidaia: 15.511 (erreserba zenbakia, 55.290)
- 2.saria, asteburu pasa landetxe batean: 01.929 (erreserba zenbakia, 44.761)
- 3.saria, sagardotegia: 08.352 (erreserba zenbakia, 06.787).

- 4.saria, parapente hegaldia: 24.037 (erreserba zenbakia, 40.878).
- 5.saria, preso bisita bidaia: 20.769 (erreserba zenbakia, 50.501).
- Saria jasotzeko 30 eguneko epea dago (informazioa: etxerat.eus).



37 urtez Usurbilgo Udalean lan egin duen Jexux Mari Zulaika usurbildarrak, amaitu du bere lan ibilbidea. Hori dela eta, lankideek merezitako despedida antolatu zioten aurreko astean, Urdaira sagardotegian. Iruditan dituzue Zulaika eta udal langileak.

## Yoga eta mindfulness ikastaro berriak

### Santuenean

Urriaz geroztik abian zeuden saioez gain, ikastaro berriak programatu dituzte Santuenean. Aurrerantzean, asteazken arratsaldetan yoga eta mindfulness saioak ere izango dira:

#### ■ Yoga:

Astearteetan: 16:00-17:30, 18:30-20:00, 20:30-22:00  
-Asteazkenetan: 16:00-17:30.  
-Ostegunetan: 09:15-10:45, 16:00-17:30, 20:30-22:00.

#### ■ Reiki:

Asteazkenetan, 18:30-20:00.

#### ■ Mindfulness:

Otsailaren 4tik aurrera, ostegunero, 8 astez. 18:00-19:30.

■ Argibide gehiagorako: yoga eta mindfulness (Juanjo Lertxundi, 637 413 691) eta yoga eta reiki (Abelina Manso, 619 791 170).

## Osasuna suspertzeko yoga tailerra, Katia Izquierdoren eskutik

Katia Izquierdok bideraturiko “ate irekien” moduko bi saio izango dira otsailaren 13an eta 20an, 17:30-20:00 artean Bake Epaitegi atzeko lokalean. Einean Guraso Elkarrekin antolatutako bi saiook doakoak izango dira. Eta interesik balego, ikastaroa denboran luzatuko litza-teke.

Informazio gehiago: kaiztos@yahoo.es  
636 711 514 (Katia).

  
**ARRANDEGIA PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

  
Paitxeta  
barkariak EGUNERO  
afariak. asteazkenetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361

  
Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

# Larunbatean, mozorrota eta zatoz festara

**P**restaketa lanak zer moduz doazen galdetzen aritu gara han hemenka. Hainbat herritarrek argi izateaz gain, diseinatzeko dabil otsailaren 6ko Inauteri Festa handirako jantzia. Jantzia, eta kasu batzuetan, baita koadrila bat baino gehiagotan azken urteotan ugaritzen ari diren karrozak ere. Prestaketa lanetan dabilatzala bai, baina larunbateko desfile egun handira arte ez dute zertan ari diren aurreraterik nahi. Inauteri Festa egunaren zain geratuko gara beraz. Larunbatean mozorro festa handia; gogoan izan, lanbideak ditugula aurtengo gaia.

## Buruhandi berriak

Otsailaren 6ko jaialdia kalean ospatuko dugu urtero moduan. Lauburu, Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak emango dio hasiera mozorro festari, eguerdi partean. "Orain Inauterien txanda da. Orain dela bost urtetik ateratzen ga-



Ostiralean hasiko da mozorro festa ikastetxeetan. Eta larunbatean, nahi duenak, festa ederra du eskura.

ren festaren txanda. Dakizuen bezala, urtero hutsik egin gabe

betetzen dugun hitzordua da hau, eta aurtengoa ez gara gu-

txiango izango. Otsailaren 6an, larunbata, eguerdiko 12:30ean aterako gara Barrenkale kaleko lokaletik. Gainera, gure erraldoi eta buruhandien urteko lehen irteera honetarako, buruhandi batzuk berriturik aterako ditugu. Animatu zaitezte gurekin festa honetan ondo pasatzera!", luzatu dute gonbita konpartsakoek.

## Dj Vanen txanda

Berrikuntza gehiago arratsalde parterako; Burrunbazale txarangakoen eskutik aurreko urteetan ospatu izan dugun kalejira 17:00etara aurreratu dugu, bazkalostean festa giroak etekin izan ez dezan. Txarangaren kalejira frontoian amaituko da, eta bertan, DJ Van usurbildarri lekukoa pasako zaio. Ivan Santxoren musika emanaldia izango dugu afalaurretik eta gauean, goizaldera arte. Plana prest dugu beraz; mozorrota denok eta kalera larunbatean, gozatu jaiaz!

# Hiru egunez, koplak eta mozorro artean

## Otsailak 4, osteguna

### Santa Ageda bezpera

#### Aginagako Eskola Txikia

■ Goizean, Aginagatik barrena koplak abesten irtengo dira Eskola Txikikoak.

#### Udarregi Ikastola

■ 15:00 LH-koen irteera. Osatuko duten ibilbidea: Ikastola gorria-Bordaxoko biribilgunea-Puntapax kalea-Kale Zahar-Eroskiko biribilgunea-Zubiaurrenea kalea-Bordaxoko biribilgunea-pilotalekua (eguraldi txarra egiten badu, 16:10ean ikastolatik atera eta frontoira jaitsiko dira).

■ 15:40 DBH-koen irteera. Osatuko duten bidea: ikastola-Artzabal-beheko farmazia-Elizaren alboko harmai-

lak-pilotalekua.

■ 16:00 HH-koen irteera ikastolatik frontoirantz (eguraldi txarra egiten badu, emanaldia 16:20an patioan etalpean).

■ 16:10 aldera, Santa Ageda eskean ateratako taldeen amaiera bateratua frontoian.

■ Oharra: ekitaldi amaieran, HH eta LHko haurrak frontoian bertan elkartu ahaliko dira senideekin. Autobusa hartu behar dutenek, bus zerbitzua Bordaxoko errotonda ondoan.

## Otsailak 5, ostirala

### Inauteri Festa eskoletan

■ Egunean zehar, Aginagako Eskola Txikian, sukaldariz mozorrota eta gai honi loturiko abesti eta jolasak egingo dituzte.

■ 10:15 Udarregi Ikastolako

LH-ko ikasleen mozorro desfilea, Kaxkoan barrena.

■ 10:55 HHkoak ikastolatik aterako dira Kiroldegira joateko.

■ 11:10 LH eta DBHkoen sarrera Kiroldegira, "Martxa" dantzatzuz.

■ 11:15 Udarregi Ikastolako ikasleen ikuskizuna Oiardo Kiroldegian: "Inauteriak Usurbilen". Sarrera mugatua, ikasleen sendientzat.

■ 15:45 aldera, inauteri festa Zubietako Eskolan. Ondoren, Guraso Elkarteak banaturiko askaria.

■ 18:30 Usurbilgo Orbeli Dantza Taldearen kalejira Kaxkoan barrena, Oiardo Kiroldegitik abiatuta.

■ 19:30 Orbeli dantza taldearen emanaldia Mikel Laboa plazan. Eurria egingo balu,

frontoian. Luzaideko Inauterietako dantzen erakustaldia.

## Otsailak 6, larunbata

■ 12:30 Udaletxetik abiatuta, erraldoi txiki, handi eta buruhandien kalejira bikaina izango dugu, dultzaineroek lagunduta.

■ 16:00 Karaoke Festa Gaztelekuan. Mozorrotuta etorri!!

■ 17:00 Frontoitik abiatuta, Burrunbazale txarangarekin kalejira, herriko kaleetan barrena. Animatu eta zu ere murgildu, lanbideekin zer ikusia izango duen mozorro festan.

■ 19:00-21:00 DJ VAN frontoian.

■ 23:00 DJ VAN berriz frontoian.

■ Antolatzailea: NOAUA! K.E.

# 1.185 eskaera, herri galdeketa egiteko

Azaroan jendaurrean aurkeztu zuten usurbildar eta zubietarrez osaturiko Erraustegia Erabakia plataforma, erraustegiaren inguruko galdeketa egitea eskatzeko sinadurak biltzen aritu da azken hilabeteotan. Guztira, 1.185 usurbildarren atxikimenduak jaso dituzte. “Helburutzat markatu genuen sinadura kopurua erraz gainditu dugu”, zioten plataformako kideek, bildutako sinadura guztiok Usurbilgo Udalari emateko, larunbat eguerdian udalbatza aretoan egin zen ekitaldian.

Zorion eta esker hitzak baino ez zituzten, ekimenean parte hartu duten herritar guztientzat. Txalo artean entregatu zizkieten Udalari, 1.185 atxikimenduak edo euren esanetan, “erraustegia bozkatzeko 1.185 arrazoi”.

Erraustegia Erabakiak Udalari egiten dion eskaria argia da; “galdetu herriari ea erraustegia egitea nahi duen ala ez”. Bildutako sinadurak Udalari eman aurretik, plataformako kide



EH Bildu eta PSE-EEko udal ordezkariak, Erraustegia Erabakia plataformako kideekin batera.

## ERRAUSTEGIA ERABAKIA

**“Bada garaia  
gizartean hainbesteko  
polemika harrotzen  
duten gaietan herriari  
hitza emateko.  
Kultura demokratikoan  
sakondu behar dugu”**

batek honako adierazpen hau irakurri zuen:

## 1.185 arrazoi bozkatzeko

“Baztertuta zegoen errauste-

giaren egitasmoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko agintari berriek berpiztu eta eraikitzeak asmoa agertu dute. Kezka eta gatazka, hasiera hasieratik, instituzioetan baino kaleetan egon da. Erraustegi hori, guk, herritarrok, ordaindu beharko genuke gure osasunarekin eta gure diruarekin, baina inork ez digu galdetu ea erraustegia nahi dugun ala ez.

Bada garaia gizartean hainbesteko polemika harrotzen duten gaietan herriari hitza emateko. Kultura demokratikoan sakondu behar dugu: agintariak, herriari erabakitzen

uzteko ohitura hartu behar dute. Hori bultzatzeko, hainbat zubietar eta usurbildar elkartu ginen joan den azaroan, eta erraustegiaren gaian gure ahotsa entzunarazteko sinadurak biltzeari ekin genion. Gaur, 1.185 herritarrek bere enkargua ematen diote Usurbilgo Udalari: galdetu herriari ea erraustegia egitea nahi duen ala ez.

Garaiak aldatzen ari dira, herria ez da asetzen 4 urtez behin bozkatuta. Arazo bat instituzioen geletatik kalera ateratzen denean, erabakitzeak esparrua ere mugitu egiten da. Gipuzkoako agintariak ez dute oraindik hori ulertu. Usurbilen, bertakoek bertan eragitea erabaki dugu, eta, gaur, 1.185 arrazoi eman diegu ulertarazteko.

Zorionak eta milesker sinadurak biltzen eta ematen parte hartu duzuen herritar guztioi. Helburutzat markatu genuen sinadura kopurua erraz gainditu dugu eta! Hemendik aurrerako erraustegiaren inguruko ekimenean ere ikusiko garelakoan... Berriz ere zorionak!

Erraustegia: Herriak Erabaki!  
Erraustegia Erabakia”.

## Herritarren mandatua betetzeko, Udala “egin ahalak eta bi egiteko prest”

Erraustegiaren inguruko herri galdeketa antolatzea eskatzeko, hilabeteotan bildutako 1.185 usurbildarren sinadura entregatu zizkion Erraustegia Erabakia plataformak Usurbilgo Udalari, aurreko larunbatean udalbatza aretoan egini-ko ekitaldian.

Pozik, sinadura bilketan parte hartu dutenak zorionduz eta galdeketa antolatze-

ko gogoz jaso zituen Udalak, usurbildarren eskaerok. Xabier Arregi alkateak adierazi zuenez, “eskaera bat egin diguzue, kontsulta bat antolatzeko, Usurbilek erraustegia egin nahi duen edo ez erabakitzeak eta guretzat eskaera hori mandatu bat da, agindua da. Herriak eskatzen duena hona iritsitakoan, guretzat mandatuan bihurtzen da eta egin ahalak eta bi egingo ditugu mandatu hori aurrera eramateko”.

## Usurbil, “herri konprometitua”

Udaletxe barruan adostasunak biltzen saiatuko direla adierazi zuen alkateak, bidean sor daitezkeen arazoei aurre egiten saiatuko direla baita, “azken batean herri kontsulta eraginkor bat egiten, herriak nahi duenari ahotsa eta bozgorailua ematen” ahaleginduko direla.

Hilabeteotan bideratu den sinadura bilketa kanpainan parte hartu duten herritar guztiak zoriondu nahi izan zituen alkateak. “Gure ustez hemen erakusten da berriz ere, Usurbil herri aktiboa, herri konprometitua dela. Gertatzen zaizkigun arazoei kezkatu eta irtenbideak proposatzen dakien herria dela”, EHBilduren alkatearen esanetan.

# “Gelditu egin behar dugu berriro, behin betiko”



Ainhua Intxaurrandietaren hitzaldiak jende askoren arreta piztu zuen.

Errauskailua Gipuzkoan? Ez al genuen, ba gelditu? Bai, eta 2019rako Foru Aldundiak iragarri duen proiektu berria ere “gelditu egin behar dugu berriro, behin betiko” zioen Ainhua Intxaurrandieta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko (GHK) lehendakari ohiak, Erraustegia Erabakia plataformak antolatuta, aurreko ostiralean Potxoe-

nean eskaini zuen hitzaldiko izenburuari erantzunez.

Erraustegia eraikitzeko proiektuak azken urteotan, gaur arte jorratu duen bidea azaldu zuen xehetasun handiz. Besteak beste, swap-ak edota kontratu eteteak tarteko, auzitegietan egin duena. Hainbat datu ezagutarazi zituen; esaterako egun jada, hilero 600.000

euro ordaintzen ditugula gipuzkoarrok, oraindik eraiki ez den azpiegitura batengatik. Eta berriena, egungo Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziotik aplikatzen ari diren neurritz kanpoko tarifak. Egungo agintariek hondakinak ondo kudeatzea zaildu nahi dutela adierazi zuen. Ikusmina sortu zuen hitzaldiak.

## Energia berriztagarrien erakusleiho

**E**nergia berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoaren azoka ospatu zen larunbat goizean Mikel Laboa plazan. Lanbide Eskola eremu honetan egiten ari den lanketaren erakusleioa izan zen. Hainbat energia berriztagarriaren sistema ikusi eta ezagutzeko aukera egon zen; eguzki panelak, berotze sistemak, ibilgailu elektrikoa...

Sutegi erakustaretoan ere, etxeko argi eta bestelako kontsumoen inguruko argibideak eskaini zituzten hitzaldi batean. Arlo honetan emateke izan ditzakegun hainbat aurrerapausoen inguruan



Energia berriztagarriaren sistema ezberdinak ezagutzeko aukera egon zen.

informatu eta kontzientziazteko gunea izan genuen ur-

tarrilaren 30ean, Mikel Laboa plaza.

## Donostian, atzera bota dute erraustegiaren aurkako mozioa

EAJ, PSE eta PP alderdien bozkekin atzera bota zuten Donostiako udalbatzan, EH-Bilduk eta Irabazi Donostiak erraustegiaren aurka urtarilaren 28ko osoko ohiko bilkuran aurkeztu zuten mozioa. Erraustegia bertan behera uztea eta zero zabor norabidean urratsak ematea eskatzen zuen testuak. Tentsio unerik ere bizi izan zen plenoan, bertaratu ziren zenbait hiritar erraustegiaren aurka oihuka hasi zirenean. Eneko Goia alkateak udalbatza aretotik kanporatu egin zituen.

## Errausketaren aurkako martxa, otsailaren 28an

Erraustegia eraiki asmo duten “0 gunera” mendi martxa antolatu du otsailaren 28rako, Errausketaren Aurkako Mugimendua. Azpiegituraren kokagunea inguratzen duten udalerrietatik herritar zutabe bana abiatuko da hilabete amaieran, zero guneko horretara. Puntu horretan elkartuko dira herritar zutabe guztiak. Eta gero, Zubietara jaitsiko dira. Antolatzaileek dagoneko finkatu dituzte martxa honen abiapuntu, elkargune eta amaiera hitzorduak:

### Abiatzeko hitzorduak

- 08:00 Zizurkilan, plazatik.
  - 08:30 Hernanin, Gudarien Plazatik.
  - 09:30 Añorga Txikitik.
  - 10:30 Lasarte-Orian, Oken-do plazatik.
  - 11:00 Usurbilen, frontoitik.
  - 11:00 Zubietan, frontoitik.
  - Herritar zutabeen hitzordu bateratua: 12:00etan Zero puntuan.
  - Amaiera. 13:00ean Zubietako frontoian.
- Deitzailea: Errausketaren Aurkako Mugimendua.



# berria astekaria

## eskutik goaz

BERRIaren asteko artikulu hautatuak,  
ostiralero, eskuko telefonoan eta tabletan

- ASTEROKOA
- BANATZEKO AUKERA
- BISUALA ETA IRAKURTERRAZA
- JAKINARAZPENAK
- ARTXIBO OSOA ESKURA
- DOAKOA



Deskargatu aplikazioa, erabili, zabaldu edukia,  
eta lagundu zure ekarpenarekin halako egitasmoak garatzen:  
[www.berria.eus/berrialaguna](http://www.berria.eus/berrialaguna)

deskargatu aplikazioa



[berria-mundua-euskarari-emaia](http://berria-mundua-euskarari-emaia)



# SAIZAR

## Sagardotegia



## Gure Esku Dago, Usurbil

### Adostutako bide orria

2015eko azaroaren 21ean Gure Esku Dago ekimen herritarren ezohiko batzarra ospatu genuen Gasteizen. Bertan, zuzendaritza batzordeko 80 kide hautatzeaz gain, "Eskura" gogoeta prozesuari amaiera eman eta aurrera begirako bide orria definitu zen.

Zehaztutako bide orrian "lehen geltokia" tokian tokiko erabakitze adierazpenak sustatzea izango da, esperientzia ezberdinen bitartez eta lekuan lekuko errealitatera egokituta. Gerora erabakitze ituna osatu nahi da, denok batera erabaki ahal izateko. Herri batzuetan dagoeneko nahiko adostasun lortu denez, herri galdeketa egingo dituzte 2016ko ekainean. Horien artean dira Azpeitia, Arrasate, Dima, Ispaster eta Goierriko 22 herriak.

### Herri galdeketa Usurbilen, Aginagan eta Zubietan

Aipatutako bide orrian aurrera egiteko gogotsu jarraitzen dugu herriko taldea osatzen dugunok. Aurten, gainera, jende berria parte hartzen hasi da eta ideia berriekin gaude. Gure Esku Dago-k osatzen duen herri dinamika zabal honetan, orain arte gure aletxoak jartzen saiatu gara eta herritarren erantzuna ezin hobea izan da. Baina lehenago ere esan izan dugun moduan, beste urrats bat eman nahi dugu; aldarrikapenean ez gara

## Herri galdeketa Usurbilen, gure esku dago!



Argazkian, Usurbilgo Gure Esku Dago taldeko kideak.

### GURE ESKU DAGO

**"2017an herri galdeketa antolatu ahal izateko, beharrezkoak izango dira herritar askoren ekarpenak eta lana"**

ainguratuta geldituko, erabakitzera goaz.

2018a bitartean ahalik eta herri gehienetan herri galdeketa antolatu eta gauzatzea da Gure Esku Dago-ren asmoa. Herriko taldeak ere 2017an herri galdeketa antolatzeko asmoa dugu, baina horretarako 2016an azken bultzada bat eman nahi diogu gizarteratze prozesuari, eta orain arte hurbildu ez zaigun jendearengana iritsi nahi dugu.

### Parte hartze kanpaina. Zure parte hartzea beharrezkoa da!

2017an herri galdeketa antolatu ahal izateko, beharrezkoak izango dira herritar askoren ekarpenak eta lana.

Lan taldeetan antolatzeko eta eztabaida guneak sortzea da gure helburua, eta bertan zure ekarpenak jasotzea. Horretarako, astero, ostiral arratsaldetan edo larunbat goizetan egiten ditugun bileretara etortzeko gonbidapena luzatu nahi dizugu.

Garbi daukagu usurbildarrok ekarpen handia egin diezaikegula Gure Esku Dago bezalako herri mugimenduari. Beharrezkoa izan den guztietan egin den bezalaxe, gure herriaren giharra erakusteko unea iritsi zaigu. Herri galdeketa burutu nahi badugu usurbildar guztiengana iritsi behar dugu, denok baikara ezinbesteko. Batzuk bileretan, beste batzuk kaleetan herrikoak parte hartzerantz bultzatzen eta beste hainbat bazkidetza deialdiari erantzuten; guztiok galdeketa parte hartzen!

### Lehen urratsa: "borondateen kriseiluak"

Bildu eta elkarrekin lanean

hasteko, "borondateen kriseiluak" izeneko lehen ekimenena egingo da.

Hasiera batean joan den abenduak 31rako antolatua bagenuen ere, lehorte kontuengatik atzeratu egin behar izan genuen. Horrenbestez, seguruenik martxoaren 11n ospatuko da. Aurrerago zabalduko dugu informazio zehatzagoa, baina bitartean, jakin ezazue kriseiluak salgai jarraitzen dutela Lizardi liburu dendan.

### Bazkidetze kanpaina

Gure Esku Dago bezalako proiektu zabal batek badi-tu zenbait behar ekonomiko ere. Nahiz eta herri zein nazio mailan egindako lan andana borondatezkoa izan, Gure Esku Dago-k badu langile estruktura gutxieneko bat (bost langilekoa momentu honetan) eta bere helburuak aurrera eraman nahi badi-tu, premiazkoa ikusten dugu horrelako gastuei aurre egitea.

Bazkidetza Internet bidez egin daiteke "gureeskudago.eus" atarian edo baita Usurbilgo GED taldeak kalean jarri ohi dugun mahaian ere: otsailaren 14an (12:00etatik 14:00etara), otsailaren 26an, martxoaren 4an eta 11n.

"Borondateen kriseiluak" ekimenaren egunean ere izango da bazkidetzeko aukera.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

# Pagazpe nagusitu zen Euskal Herriko Klub Arteko Txapelketaren finalean

**P**agazpek Usurbilgo Pilota Elkartek talde sendoa osatu du. Azken bolada honetan hainbat txapelketa irabazi dituzte eta, gaur egun, Euskal Herriko areririk gogorrenetakoa da. Talde orekatua du gainera. Adin zein modalitate ezberdinetan trebeak dira. Eta hein handi batean, oreka horri esker nagusitu dira Euskal Herriko Klub Arteko Txapelketan.

Finalean faborito nagusiak ziren. Baina txapela eskuratzeko, jokatu egin beharra dago. Faborito izateak ez du, bere horretan, garaipenik ziurtatzen-eta. Txapelketa honetan argi geratu da horrelako hitzorduetan ere maila handiko pilotariak dituela Pagazpek.

Lau t'erdikoan galdu egin



Amezketeta eta Alegiako frontoietan jokatu ziren Usurbilgo Pagazpe eta Tolosako Aurrera Saiatz taldeen arteko finalak.

zuen Usurbilgo taldeak. Aurrera Saiatz taldeko Arratibelek Pagazpeko Ander Quinari 18-15 emaitzarekin irabazi zion partida.

Banaka kantxa osoan jokatu beharreko finala ordea,

Alegian jokatu behar izan zen, Amezketa hezetasunak pilotarien lana arriskuan jartzen zuelako. Partida honetan Pagazpeko Xabi Santxo nagusitu zen, aise nagusitu ere. 18-9 azken emaitza.

Binakako partida ere Alegian jokatu zen, eta azken honetan ere Pagazpe gailendu zen 22-20. Xabier Urbieta eta Aitor Gorrotxategiren garai-penarekin, Pagazpe izan da Euskal Herriko klub artean jokatzeko txapelketako talderik onena.

## Lau t'erdian:

AURRERA SAIATZ 18

PAGAZPE 15

(Ander Quina)

## Banaka kantxa osoan:

PAGAZPE 18

AURRERA SAIATZ 09

(Xabi Santxo)

## Binaka:

PAGAZPE 22

AURRERA SAIATZ 20

(Xabier Urbieta, Aitor Gorrotxategi)

## Datorren astean, Epele eta Ugaldetxo aldera mendi irteera

Otsailaren 14an igandea, Andatza mendizaleen kirol taldekoak "Usurbildik autobusez Ereñozu ingurura abiatuko gara, Urdaburuko magalak zeharkatuz Epeletik Ugaldetxora bira egiteko. Ondoren autobusean Usurbila itzuliko gara", berri eman du Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak. Goiz pasa honetarako izen ematea zabalik dago jada.

■ Eguna: otsailak 14, igandea.

■ Ibilbidea: Epele-Ugaldetxo, 14 km.

■ Abiatzeko hitzordua: 8:00etan, Oiardo Kiroldegitik. Joan etorria: autobusez.

■ Izen ematea: 10 euro, otsailaren 10a baino lehen kontu zenbakiotako batean:



14 kilometroko ibilbidea osatuko dute otsailaren 14ko irteeran. Goizeko 8:00etan abiatuko dira Oiardo Kiroldegitik.

Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805

■ Oharra: Andatza Mendizaleen Kirol Klubak antolatzen dituen irteeretan parte hartze-

ko derrigorrezkoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea.

■ Informazio gehiago:

andatzamendizale.info

■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.

## NOAUA!ko bazkideontzat hobaria, Errenta Aitorpenean

Aurten 20 urte beteko dituen NOAUA! Kultur Elkarteko bazkide izateak abantaila bat baino gehiagoz gozatzeko aukera eskaintzen du. Baita urtemuga berezi honetan ere. Adi, zuetako askok apiriletik aurrera tramitatu beharko duzuen Errenta Aitorpenean. Bazkide zaretenei hobaria aplikatuko zaizue eta. Horretarako ordea, zuen laguntza behar dugu; zuen nortasun agiriko zenbaki osoa eta letra zein den jakin beharrean gaude. Ezinbestekoa dugu datu hau, Ogasunean zuen errenta aitorpenean NOAUA!n duzuen bazkideztan kon-tuan hartua izan dadin. Zuen NAN zenbakia eta letraren berri emateko deitu ostiral hau baino lehen, 943 360 321 telefono zenbakira, idatzi elkarte@noaua.eus helbidera edo etorri NOAUA!ko egoitzara.

# Inoizko parte hartze altuena

**B**ezperatan ikusi zen nabarmen gorantz egiten ari zirela inskripzioak. Aurrez 459 lagunek zuten izena emanda, baina azken orduan apuntatu zirenei esker, 560tik gora lagunek parte hartu zuten igandean ospatu zen Irisasi BTT proban.

Marka guztiak hautsi dituzte aurtengoan. Bizikleta mar-txa hasi aurretik, urtarilaren 31n Mikel Laboa plazak zuen itxura genuen, horren guztia-  
ren erakusgarri. Bizikleta za-  
leez bete zen frontoi atzealdea. Behin abiatu zirenean, aukeran osatu zitzaketen ibilbide motz zein luzean, ez zuten “hotzak akabatze” moduko girorik izan. Edizio gogorragoak tokatu



Irisasi BTT lasterketan 459 lagunek eman zuten izena.

zaizkie lehenagotik. Eta proba amaieran, biziago edo man-tsoago, denek erakutsi zuten helburua bete izanaren poza.

Tantaka iritsi ziren Anda-tzako mendi buelta egin zuten txirrindulariak. Tartean, hainbat usurbildar. Bat baino gehia-

go, noaueus atariko Argazki-  
tegia bildu ditugun irudietan  
“harrapatu” genituen, helmu-  
gatik gertu, azken metroetan.  
Antolatzaileek bidean zehar  
ateratako argazki bilduma, an-  
datzamendizale.info atarian  
ikus dezakezue.

## Euskal Ligan jarraituko dute eskubaloit taldeek

**J**okoan zuten Euskal Ligan segi ahal izatea, baina as-  
teburuko garaipenen on-  
doren maila berean lehiatzen  
jarraituko dute, Usurbil Kirol  
Elkarteko jubenil neskek eta  
kadete mutilen zein nesken  
taldeek. “Kadete neska-mu-  
tilek gaizki hasi zituzten eu-  
ren sektoreak, ostiralean biek  
galdu egin baitzituzten euren  
partidak, baina beste partida  
guztiak irabazita, aurrera egin  
dute”, Usurbil K.E.-tik berri  
eman digutenez.

Hauetz gain, jubenil mutilak  
zuzenean Euskal Ligan jarraitze-  
ko sailkatuak zeuden. Honatx ka-  
deteek eta jubenilek asteburuan  
jokatu dituzten sailkapen faseen  
emaitzak:

### Jubenil neskak:

Urduliz 19 - 33 Usurbil  
Egia - Usurbil (Egia ez zen aur-  
keztu)  
Aloña Mendi 26 - 33 Usurbil

### Kadete mutilak:

Elgoibar 31 - 23 Usurbil  
Usurbil 32 - 25 Escolapios  
Urnieta 23 - 30 Usurbil



Pozarren ageri dira. Gainontzeko taldeak ere hurrengo fasera igaro dira.

### Kadete neskak:

Usurbil 23 - 31 Pulpo  
Usurbil 26 - 17 Bar Alaiki  
Muskiz 22 - 29 Usurbil

### Ligako hurrengo fasea

Fase berri bati ekingo diote orain, eskubaloit taldeok. Gero, “multzo bakoitzean bina talde sailkatuko dira beste multzoe-  
takoekin Euskadiko amaierako  
sektorea jokatzeko, eta hor-  
tik Espainiako txapelketarako  
txartelak aterako dira”, Usurbil  
KETik aditzera eman dutenez.

Hurrengo fase honetan, tal-

deok izango dituzte aurkari  
usurbildarrek:

■ Jubenil mutilak: Basauri  
(Bizkaia), Eibar (Gipuzkoa),  
Leizaran (Andoain, Gipuzkoa).

■ Jubenil neskek: Errotabarri  
(Ermua, Bizkaia), Bera Bera  
(Donostia, Gipuzkoa), Basauri  
(Bizkaia).

■ Kadete mutilak: Bidasoa (Irun,  
Gipuzkoa), Ereintza (Erretera,  
Gipuzkoa), Urduliz (Bizkaia).

■ Kadete neskek: Zarautz (Gi-  
puzkoa), Errotabarri (Ermua,  
Bizkaia), Ereintza (Erretera,  
Gipuzkoa).

## Judo Klubeko gazteak bikain Gipuzkoako Txapelketan

Oraingoan gaztetxoek  
ekarri dituzte garaipenak  
Usurbil Judo Klubera. 13 do-  
mina larunbatean, Hernanin  
ospatu zen Gipuzkoako Ju-  
nior Txapelketatik. Larunba-  
tean Gasteizen jokatu du-  
ten Euskadiko Txapelketari  
begira dira jada.

Geure mugetatik kanpo  
ere, Lillen (Frantzia) lehiatu  
da asteburuan Ion Martin.  
Txapelkunorde amaitu zuen.

## Futbolari beteranoei deia

“Futbola gustuko izan eta  
Usurbil F.T.-n jokatu baduzu,  
beteranoen taldean parte  
hartu!”. Argibide gehiago-  
rako: 658 709 246.



## Eskubaloia Kiroldegian

### Otsailak 6, larunbata

09:30 Alebin mutilak, Buruntzal-  
dea: Udarregi 5A - Udarregi 5C  
16:30 Senior mutilak, 1. nazio-  
nala: Ucin Aluminio Usurbil-CD  
Bidasoa Irun.

Ordua zehazteke: Senior neskek,  
Euskal Liga: Usurbil KE-Ereintza  
Oharra: behin behineko ordute-  
giak. Aldaketak egon daitezke.

## Gipuzkoako selektzioarekin

### Otsailak 6, larunbata

09:00 Infantil nesken entre-  
namendu saioa Orioko Karela  
Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko  
Malen Arregi, Aitana Davila eta  
Uxue Olaizola deitu dituzte hi-  
tzordura.

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, aluminiozko leihoak, berogailua etxe guztian eta hiriko gasa. 15 metro koadroko baju bat ere bai. 95.000 euro. 659 460 979

Askatasuna plaza aldera ematen duen etxebizitza eta garaje marra salgai Kaxkoan. 3. solairua. 80 metro koadro, 3 logela, 2 komun, sukaldea, jantokia, egongela eta 24 metro koadro trasteroa. 269.000. 943 916 834.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldea jantokia aparte duela. 605 707 642.

Atikoa Zubietan, 110m2 erabilgarri. 2008an guztiz berritua, tei-latuaren estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2-ko egongela. Haize egokituia. 225.000. 669781959 Julen

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Etxe salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erre-formatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Santuenean pisu bat salgai. Erre-formatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi: dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxe salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

## Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu bat alokairuan Puntapax-en. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Duplex modukoa, oso oso berezi jarrita. 627 496 740. Carlos.

Pisu bat alokairuan Artzabalen. Behoko solairuan, terrazarekin eta oso egoera onean. Tel. 655 708 276.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

2 lagunentzako alokairuko pisu bila. Behoko solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682

214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Kale Nagusian, garaje itxi handi bat alokatzen da. 943 361 235.

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairu batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Antxetan, neska bat behar dugu asteburuetan zerbitzatzeko. Tel. 943 370344

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Neska bat eskaintzen da etxea zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko orduka. Disponibilitatea 9:00etatik 15:00tara. 629 110 310.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batzere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administrazioaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarak egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jate txerren batean harraskako garbiketarak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketarak. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak

ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituladuna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketarak, plan-txatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.



**Zorionak Haritz!** Otsailaren 8an, 8 urte egingo dituzu. Muxu asko zure familia osoaren partez.



**Zorionak Eire!** Muxu handi bat Peru, Aitaxo eta Amatzoren partez.



**Zorionak Nora!** Otsailak 3an zure 8 urtebetetzeak ospatuko ditugu. Muxu potolo potoloak etxekoan partez.



**Zorionak mutilak!** Otsaileko gure laukote honek 11 urte betetzen ditu, muxu handi bana eta ondo ospatu zuen urtebetetzea, Julen, Julen, Mikel eta Imanol.



**Zorionak Joanes!** 9 urte... gero eta haundiago. Konturatzerako zure anai-arrebak baino altuago egingo zara! Muxu handi-handiak zuretzat.

## Heriotzak

**Juan Mari Borda Zubeldia**

99 urterekin hil zen

urtarrilaren 31n Usurbilen

**José González Revilla**

77 urterekin hil zen

urtarrilaren 26an Usurbilen

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua-ekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioa ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelek egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titulua-ekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko.

ko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batekin lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi

maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titulua-ekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

### BESTELAKOAK

Egurrarekin sua egiteko ekonomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. 608 703 669

Urtebeteko ume baten zapata bat galdu genuen abenduaren 4an. Granate-berenjena kolorekoa, hosto berde pare batekin.

See Kai Run markakoa, 5 talla. 639 469 577.

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Ume txaketa bat galdu da (marroia) Askatasuna plaza-Atxegalde bitartean 943110954

8-10 urteko haur baten tamainakoa den sudadera gorri bat galdu dugu. Letra grabatu beltzak ditu. 676 82 33 11

Babarrun beltza eta babarrun motz zuria salgai. Usurbilgo erriban eta botikarik gabe ekoiztutakoa. 2015 uzta. Tel: 65 777 01 31 (WhatsApp).

Memoria txartela galdu da argazki kamerarena, aurkitu baduzu eraman NOAUAra mesedez.

Bi "artzai txakur" oparitzen ditut. Bata lau urtekoa, etxea zaintzeko eta bere kumea, hiru hilabete eta erdikoa. Tel. 660 093 071.

Giltza batzuk agertu dira Bizkartzon. Galdu dituenak pasa NOAUAtik, bertan ditugu eta.

Giltza batzuk galdu dira, erdigunean. NOAUAIn edo Udaltzaingoan uztea eskertuko nuke.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Tel. 943 363 201.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

|                                   |             |                                 |                   |
|-----------------------------------|-------------|---------------------------------|-------------------|
| Udala.....                        | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea.....     | 943 376 650       |
| Atez ateko bulegoa.....           | 900 776 776 | Taxia (Angel).....              | 607 928 770       |
| Udaltzaingoa.....                 | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza)..... | 677 373 466       |
| Udal zerbitzuak (Brigada).....    | 943 370 148 | Eusko Tren.....                 | 943 470 976       |
| Sexu Aholkularitza Gunea.....     | 697 919 516 | LurraldeBus.....                | 943 000 117       |
| Gizarte Zerbitzuak.....           | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua.....  | 943 362 894       |
| Diputazioa - Basetxea.....        | 943 361 215 | Anbulategia.....                | 943 362 013       |
| Bake Epaitegia.....               | 943 372 336 | Oa botika.....                  | 943 376 076       |
| Udarregi Ikastola.....            | 943 361 216 | Iturralde botika.....           | 943 363 395       |
| Haur Eskola.....                  | 943 374 061 | DYA.....                        | 943 464 622       |
| Zubietako Lanbide Eskola.....     | 943 364 600 | Gurutze Gorria.....             | 943 272 222       |
| Zubietako Herri Batzarra.....     | 943 372 077 | Emergentziak.....               | 112               |
| Hastapen tailerrak.....           | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta ..    | 900 840 111 / 016 |
| KZgunea.....                      | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea.....       | 943 362 163       |
| Oiaro Kiroldetgia.....            | 943 372 498 | Gipuzkoa Donostia Kutxa.....    | 943 361 202       |
| Sutegi Udal Liburutegia.....      | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala .....  | 943 364 740       |
| Zumarte Musika Eskola.....        | 943 371 594 | Banco Guipuzcoano.....          | 943 370 006       |
| Etumeta AEK euskaltegia.....      | 607 609 379 | Banco Popular Español.....      | 943 370 411       |
| Kalezar Eguneke Zentroa.....      | 943 365 249 | BBVA.....                       | 943 377 155       |
| Gure Pakea Zahar Egoitza.....     | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa.....           | 943 368 842       |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza.....  | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola.....     | 901 202 020       |
| Arrate Zahar Egoitza.....         | 943 366 340 | Gas naturala - Naturgas.....    | 902 123 456       |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia..... | 943 361 239 | Telefonica.....                 | 1004              |
| Noaia Kultur Elkartea.....        | 943 360 321 | Euskaltel.....                  | 900 840 840       |

## Goardiako farmaziak

|                      |                 |                                 |
|----------------------|-----------------|---------------------------------|
| <b>Osteguna 04</b>   | GIL             | Kale Nagusia 24. Lasarte        |
| <b>Ostirala 05</b>   | ACHA-ORBEA      | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| <b>Larunbata 06</b>  | LASA SUQUIA     | Kale Nagusia 42, Lasarte        |
| <b>Igandea 07</b>    | LASA SUQUIA     | Kale Nagusia 42, Lasarte        |
| <b>Astelehena 08</b> | URBISTONDO      | San Franzisko 1. Lasarte        |
| <b>Asteartea 09</b>  | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte         |
| <b>Asteazkena 10</b> | ORUE            | Jaizkibel plaza 2. Lasarte      |

## Otsailak 04 - otsailak 14

|                     |            |                          |
|---------------------|------------|--------------------------|
| <b>Osteguna 11</b>  | DE MIGUEL  | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| <b>Ostirala 12</b>  | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| <b>Larunbata 13</b> | GIL        | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| <b>Igandea 14</b>   | GIL        | Kale Nagusia 24. Lasarte |

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

<https://www.cofgipuzkoa.com/>

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87  
22:00 - 09:00

# Agenda otsaila

## 05 ostirala

- **Inauteriak ikastetxeetan** ikus 9. orrialdea.
- **Usurbilgo Orbeldi Dantza Taldearen kalejira**  
18:30ean kaxkoan barrena, Oiardo Kiroldegitik abiatuta. 19:30ean Orbeldiren emanaldia Mikel Laboa plazan.

## 06 larunbata

- **Inauteri Festa: lanbideak** egun osoko festa  
Kaxkoan barrena. Ikus 9. orrialdea.

## 07 igandea

- **Haurrentzako zinea: "Yugo eta Lala"**  
17:00etan Sutegin. Sarrera: 3 euro, egunean bertan.

## "Yugo eta Lala", igande honetan haurrentzako zinea Sutegin

Azken txanpan da Usurbilgo Udaren negu parteko zine zikloa. Igande honetan, "Yugo&Lala" haurrentzako filma euskaraz ikus ahal izango da Sutegin, 17:00etan hasita. Udalak antolatuta eta Ziortza Gazte Elkartek lagunduriko proiektiorako sarrerak egunean bertan izango dira salgai, 3 eurotan.

"Yugo neskatila ausarta da, eta aitarekin eztabaidan aritu ostean, etxetik ihes egin eta animaliak bizi diren lainoetako mundu fantastiko batera alde egiten du. Bertan, Lala eta osaba Hartza lagun zaharrekin elkartzen da", hala dio filmeko sinopsiak. Hortik aurrerako istorioa, igandean Sutegin.



Sarrerak egunean bertan ipiniko dituzte salgai.

## Afari beganoa eta kontzertu gaua Gaztetxean

Bi hitzordu antolatu dituzte asteotarako Usurbilgo Gaztetxean. Animalietatik eratorriak ez dauden jakiekin prestatu-riko afari beganoa otsaileko bigarren ostegunean, eta astea bizi asko abiatzeko kontzertu gaua otsailaren 15erako. "Animatu eta gozatu zuzeneko musikaz!", luzatu dute gonbita bi ekitaldion antolatzaileek.

### Otsailak 11, osteguna

20:30 Afari beganoa, borondatearen truke. Afalostean, Apalatxe musika taldea.

### Otsailak 15, astelehena

20:00 Kontzertu gaua: Litovsk (Bretainia) eta Marmol (Bilbo) postpunk taldeak, eta Buterflai bakarlarria (Orozko). Antolatzailea: Usurbilgo Gaztetxea.

### Datozenak

#### Otsailaren 14an, Tipi-Tapa

Aitzaga, Artzabal, Txiriboga, Txirristra eta Bordatxo tabernetan egiten da Tipi-Tapa pintxo ibilaldia. Ohi bezala, bi sari nagusi zozketa-tuko dira:

1. saria: 150 euroko erosketa balea.
  2. saria: 2 lagunentzako afaria.
- Datorren astean jakinaraziko dugu otsaileko Tipi-Tapan zein izango den pintxoaren osagai nagusia.

#### Eguerdi partean egingo da otsaileko kantu-jira

Hilabetezko azken larunbatean elkar-tu ohi dira. Eta iluntze partean. Otsailaren 27rako antolatu duten kantu-jira ordea eguerdian ospatuko da. 12:00etatik 14:00etara izango da otsaileko kantuzaleen hitzordua. "Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera", luzatzen dute gonbita Kantu Taldetik.

#### Entseguak, asteartetan

Gogoan izan, asteartero biltzen direla Kantu Taldekoak Udarregi Ikastolan, 18:30-19:30 artean.

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax: 943300045

**Iñaki Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA • ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com  
**600 024 825**

**ELORZA**  
OBRAK ETA ERREFORMAK S.L.

**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



**berria**  
fundazioa

BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOA  
**BERRIA beka**

Euskara, hedabideak eta teknologia berriak kontuan hartuta proiektu berriak sortu eta martxan jartzeko.

Hedabide, enpresa edo bestelako proiektu berriak sortzeko.

Proiektuak 2016ko apirilaren 1era bitartean aurkeztu ahal izango dira.

Bekaren irabazleak zer jasoko duen trukean:

- 12.000 euro proiektua martxan jartzeko.
- BERRIA Hedabideen Fundazioak eta BERRIA Taldeak dituzten baliabideak erabiltzeko aukera.
- Landutako proiektua martxan jartzeko laguntza, beharren arabera zehaztuko dena.
- Proiektuaren helburua enpresa bat sortzea bada, egileak horretarako Laboral Kutxaren Gaztenpresa Fundazioaren laguntza izango du, nahi izanez gero.

Informazio gehiago eta bekaren oinarriak, webgune honetan: [berria.eus/fundazioa](http://berria.eus/fundazioa)

# URDAIRA



## Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91

## OTSUA-ENEA

### SAGARDOTEGIA

# 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN

## DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik maiatzak 1era  
TXOTX GARAIA  
Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



943 36 12 29

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak  
Petrizta bidea z/g. 20170 Zubietta USURBIL  
[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com) | [www.astazaransagardoak.com](http://www.astazaransagardoak.com)



# ELUTXETA

## SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



**SAIZAR**  
Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39  
USURBIL

Sagardotegiko erreserbak:

# 943 37 39 95

(Igande gaua eta astelehen  
eguerdia itxita)

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

# aginaga

## SAGARDOTEGIA

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIK!  
ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA

# 943 36 67 10

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



%100 bertako sagarra

# Tel: 943 365 031

Santuenea